

IKASLEEKIN EGITEKO JARDUERAK

Haurren aurrean helduok heldu ekimenaren hartzailleak haurren inguruan dabiltzan helduak badira ere, ume eta gazteekin ere lanketak egiteko aukera ematen digu. Hortaz, eskoletan ikasleekin lantzeko zenbait jarduera proposatuko ditugu hurrengo lerroetan.

16 urte azpikoek ariketan parte hartu ezin badute ere, euren inguruan gertatzen diren hizkuntza praktikei buruzko lanketa egin eta gurasoen zein inguruko helduen ariketa xaxatzeko eta hausnarketak bultzatzeko rola izan dezakete.

3-12 urteko adin tartean dauden haurrekin lantzeko proposamenak egingo dira jarraian, adin tarteka banatuta:

HAUR HEZKUNTZA (3-6 URTE)

Helburuak:

- Guraso edo zaintzaileei ekimenaren berri ematea.
- Erabiltzen dituzten hizkuntzen inguruan hitz egitea guraso edo zaintzaileekin.

Jarduera:

Ekimenerako sortu diren komikien margotzeko bertsioak banatuko dizkiegu ikasleei. Lehenik eta behin, komikiak elkarrekin irakurriko ditugu eta bertan agertzen diren egoeren inguruan hitz egingo dugu beraiekin. Gero, komikiak margotu egingo ditugu, etxera eramateko.

Etxean, gurasoekin komikiak ipuinak bailiran irakurtzeko eskatuko diegu, egoera horiek ezagunak egiten zaizkien, euren ere halakorik gertatzen zaien eta abar komentatzeko. Ondorengo egunetan, ikasgelan gurasoek kontatu dieten horri buruz hitz egin daiteke. Horrez gain, familiei beraien hizkuntza ohituren inguruan bi minutuko bideo bat grabatzeko eskatu ahal diegu, ondoren gelan ikusi eta gaiaren inguruan jarduteko.

LEHEN HEZKUNTZA (6-12 URTE)

Helburuak:

- Guraso eta zaintzaileek dituzten hizkuntza-praktikak behatzea.
- Guraso edo zaintzaileei ekimenaren berri ematea.
- Guraso edo zaintzaileekin egunerokoan erabiltzen dituzten hizkuntzen inguruan hausnartzea eta hitz egitea.
- Gelako bestelako kideen errealitatearen berri izan, esperientziak trukatu eta orokorrean guraso eta zaintzaileek dituzten hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzea.
- Euskara-eragile moduan zer egin dezaketen pentsatu eta praktikan jartzea.

Jarduerak:

Zikloaren eta ikasleen gaitasunen arabera, maila eta sakontasun ezberdinetan landu daitezke jarraian azaltzen diren jarduera ezberdinak:

1. jarduera. Egoera ezberdinak aztertu eta komentatzea.

Ekimenerako sortu diren komikietan agertzen diren egoerak oinarri hartuta, euren egunerokoan izaten dituzten bizipenak aztertu eta komentatuko ditugu ikasgelan.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute guraso edo zaintzaileekin?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten didate guraso edo zaintzaileek?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute guraso edo zaintzaileek euren artean?
- Nirekin ezberdin egiten al dute? Zergatik izan daiteke?
- Nola sentitzen naiz guraso edo zaintzaileek nirekin hitz egiteko hizkuntza aldatzen dutenean?
- Zer gustatuko litzaidake? Zergatik?

2. jarduera. Guraso edo zaintzaileen hizkuntza-praktikak behatzea.

Gelan testuingurua ezarri ostean, behatzaile rola hartuko dute ikasleek. Euren egunerokoan (etxean, kalean, eskolaz kanpoko ekintzetan, eskolan...) inguruko helduek dituzten hizkuntza-praktikak behatuko dituzte:

- Zein hizkuntzetan egiten didate niri?
- Zein hizkuntzetan egiten dute euren artean?
- Ba al dago aldaketarik? Zergatik izan daiteke?
- Gustatzen al zait? Zer nahiko nuke?
- Nola sentiarazten nau?

3. jarduera. Erronka

Ondoren, jasotakoaren gaineko gogoeta egitea proposatuko dugu, ondorioak ateratzeko asmoarekin.

Errealitate eta ondorio horiek kontuan hartuta, ikasleei erronka bezalako bat proposatuko diegu, galdera honi erantzuteko helburuarekin: Zer eta nola egin dezakegu euskararen erabilera bakoitzaren testuinguruetan sustatzeko?

Egoera parekoa duten ikasle/errealitateak talde txikitan elkartu eta ekintza ezberdinak irudikatzeko eskatuko diegu, ondoren talde handian aurkeztu eta praktikan jartzeko.

4. jarduera. Komikiak sortzea

Ekimenerako sortutako komikiak hartu eta maila ezberdinetako lanketak egin daitezke, adin tartearen arabera:

- Komikiak margotu.
- Komikietan etxean ikusitako egoerak irudikatu, elkarrizketetako testuak aldatuta.
- Zerotik komiki berriak sortu, egoera ezberdinak irudikatzeko.

5. jarduera. Etxean komikiak partekatzea eta elkarrizketa sortzea.

Gelan landu dituzten komikiak etxera eramango dituzte, gurasoei edo zaintzaileei erakutsi eta bertan irudikatutako egoerei buruz hitz egiteko. Elkarrizketa sortzeko helburuarekin, zenbait galdera egin ahal dizkiete guraso edo zaintzaileei:

- Ezagunak egiten al zaizkizu egoerak?
- Zuk ere egiten al duzu halakorik? Zergatik?
- Zerbait aldatu nahiko zenuke?

Horrez gain, ikasleek dituzten bizipenak, ikuspuntuak eta nahiak partekatu ditzakete guraso edo zaintzaileekin.

6. jarduera. Etxean hitz egindakoak ikaskideekin partekatzea.

Azken jarduera moduan, egindako lan guztia eta etxean izandako elkarrizketetan ikasitakoa gelan partekatu daiteke, elkarrizketa zabal batean. Hala, gelako beste ikasleen egoerak ezagutu, ikaspenak partekatu eta gelako aniztasuna bistaratuko dugu.

Amaitzeko, euren inguruko helduek euskara gehiago erabili dezaten euren zer egin dezaketen landu daiteke taldean.